

Hamabost egunez, Kolonbiako 14 irakasle prestakuntza berezia hartzen ari dira MUn

2010/01/18

Urtarrilaren 18tik 29ra formazio saioak egingo dira bai Eskoriatzan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, eta baita Arrasaten ere, Goi Eskola Politeknikoan, prestatzeko 14 irakasle kolonbiar, Fundación Universitaria Panamericana erakundeak.

Ongi etorria urtarrilaren 18an egin zitzairen HUHEZIKo areto nagusian, Mondragon Unibertsitateko eta Alecopeko agintariak bertan zirela.



Helburuak

Prestakuntza saio horrek hainbat helburu ditu:

- Definitzea eta jakitea ikaslearen gidaliburuak zelako helburu eta egitura izango dituen.
- Sortzea ikaslearen gidaliburu bat irakasgai baterako.
- Prestatzea materiala ikaslearentzat, beronek gainditzeko gidaliburuak agindutako egoerak.
- Ulertzea zer kontzeptu eta printzipio erabiltzen diren tutoretzaren inguruan.
- Tutoretza giltzarriztat jotzea ikaskuntzaren prozesuan.
- Ezagutzea ikaslearen portfolioa eta beronen eragina ikaste prozesuan.
- Definitzea ebaluazio irizpideak.
- Partekatzea zenbait esperientzia Mondragon Unibertsitatearen fakultate bakoitzean bizi izandakoak praktika eta karrera amaierako proiektuetan.

Prestakuntza saioez gain, 14 irakasleek **hainbat ekintza osagarri** izango dituzte, hala nola, bisitak kooperatibetara eta Euskal Herriko zenbait toki interesekoetara.

